

***“Aldez aurreko jendaurreko kontsulta, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duen foru dekretuari buruzko proiekturako”.***

**XEDEA EDO AZALPENA:**

Aldez aurreko kontsulta honen xedea da herritarren iritzia eta ordezkari handiena duten erakundeena jasotzea, hain zuzen ere, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzetarako curriculuma ezartzen duen foru dekretuari buruzko proiektuaren eraginpean gerta litezkeenena, honako arlo hauei dagokienez:

*a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.*

Foru dekretu honen bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako irakaskuntzei dagokien curriculuma ezarri nahi da, une honetan indarrean dagoen legedira egokitzeko, eta, horrela, hezkuntza administrazioek beren lurralde-eremurako curriculuma ezartzeko ardura dutela adierazten duen lege agindua betetzeko.

*b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.*

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena, indarrean sartzearen ondoriozko curriculum aldaketa berriek beharrezko egiten dute ezartzea Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma.

Era berean, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat, prestakuntza komuna ziurtatzeko eta tituluen baliozkotasuna bermatzeko, Gobernuak finkatu behar ditu gutxienezko irakaskuntzak osatzen dituzten curriculumaren oinarriko alderdiak. Hezkuntza administrazioek, berriz, ezarri behar dute lege organiko horretan araututako irakaskuntzen curriculuma, Gobernuak aldez aurretik finkatutako oinarriko alderdiak barnean hartuta.

*c) Arauaren helburuak.*

Foru dekretuaren helburua da Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzea.

*d) Zer beste konponbide egon litezkeen (arauak edo arau ez direnak).*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, autonomia erkidegoei dagokie hezkuntzaren arloan dituzten estatutu eskumenak gauzatea eta lege organiko horretako xedapenak garatzea.

Era berean, eta Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 6.5 artikulua betetzeko, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzea, Gobernuak aldez aurretik finkaturiko oinarriko alderdiak barnean hartuta.

Iruñean, 2021eko irailaren 28an. Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzuko zuzendaria, Pablo Arriazu Amat.

(Sinadura jatorrizkoan dago)